

LURRALDEKO ERAGILEEI EGINDAKO KONTSULTAK

Jarraian Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partziala berrikusteko Lurraldeko Eragileei egindako Kotsulten testuinguruan izandako elkarrizketen laburpena jasotzen da.

Kontsultatutako agenteak hauek izan ziren:

Irati Burgués Asteasu, idazkaria	Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoa, Bizkaiko delegazioa
Alfonso Martínez Cearra, zuzendari nagusia	Bilbao Metropoli 30
Ana Sancho, Sustatze Planaren teknikaria	Bilbao Metropoli 30
Fernando Azurmendi Irasuegi, zuzendaria	Bizkaiko Basogintza Elkartea, Basoa
Kontxi García Alonso, abokatua	Baskegur
Mikel Vázquez Cisneros, arduraduna	Langile Komisioak, Bizkaia
Aitziber Virgel, kidea	Bilboko Auzo Elkarteen Federazioa
Karmelo Anakabe, kidea	Bilboko Auzo Elkarteen Federazioa
Amaia Garay Palacio, gerentea	Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Elkargoa
Jon Ander Etxebarria Garate, dekanoa	Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala

Egindako 7 elkarrizketek antzeko formatua izan zuten. Kasu guztietan laguntzaile teknikoek aurkezpen bat egin zuten eta hurrengo urratsak proposatu zituzten. Elkarrizketak jarraian transkribatu ditugu:

BMLPParen berrikuspenean parte hartzeko prozesuaren aurkezpena

Eztabaida abiarazteko, Iñaki Romerok, laguntzaile tekniko gisa, parte-hartze prozesua eta Bilbo Metropolitarraren LPParen berrikuspena azaldu zituen.

Hasiera batean, 2006an onartu zen Bilbo Metropolitarraren Lurralde Planaren testuingurua deskribatu zen, LAGek, LPSek eta HAPOek osatutako lurralde-plangintzaren blokearen barruan. Ondoren, 2016ko irailean hasitako berrikuspenearen egitura orokorraren berri eman zen; izan ere, berrikuspenearen Aurrerapena, tramitazioaren lehen dokumentu formala, 2017ko udazkenean aurkeztuko da.

Parte-hartze prozesu berari dagokionez, helburuak eta egin diren zein egiteke dauden ekintzak aurkeztu ziren, eta elkarrizketatutako erakundeei parte hartzeko gonbita luzatu zitzairen. Erakusketa ibiltariaren nondik norakoak azaldu ziren eremu funtzionaleko hainbat udalerritan, bai eta web-orria eta aurretik egindako prozesuaren aurkezpen publikoa ere. Egutegia aintzat hartuta, foro tematikoetan eta tailerretan parte hartzea interesgarria zela azpimarratu zen.

Orobat, elkarrizketatutako erakundeei hurrengo hilabeteetan BMLPParen berrikuspenearen Aurrerapen-dokumentuari ekarpen bat egiteko eskatu zitzairen.

Hurrengo urratsak

Azkenik, laguntzaile teknikoek parte-hartze prozesuan eman beharreko hurrengo urratsak azaldu zituzten.

Funtsezko 3 ohar eman ziren hurrengo hilabeteetan parte hartzen duten erakundeek izango duten rola gainean. Lehenik, foro tematikoetan eta tailerretan parte hartzeko eskatu zitzairen, urtarrilean eta otsailean zehar.

Bigarrenik, jakinarazi zitzairen, hurrengo bi hilabeteetan, BMLPParen berrikuspenearen Informazio eta Diagnostiko agiri bat bidaliko zaiela, eta onuragarria izango litzatekeela dokumentu horren gaineko ekarpenak eta iradokizunak egitea.

Hirugarrenik, hurrengo udaberrian, diagnostikoan oinarritutako eta Aurrerapen-dokumentura zuzendutako parte-hartze tailer batera joateko gonbita luzatu zitzairen.

Jarraian elkarrizketatutako erakunde bakoitzak egindako ekarpenak laburtzen dira:

Lurraldeko eragileen ekarpenak

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala. Bizkaia

Irati Burgués Asteasu, idazkaria	Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoa, Bizkaiko delegazioa
----------------------------------	--

Data: 2016/12/21

Tokia: Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko delegazioa. Mazarredo zumarkalea, 69, 48009 Bilbao

Ordua: 10:00-10:45

Bilera Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren Bizkaiko egoitzan egin zen.

Prozesuaren hainbat alderdi komentatu ahala, adostasun-esparruak bilatu ziren.

Erakusketa ibiltariaren nondik norakoak azaldu ziren eremu funtzionaleko hainbat udalerritan, bai eta web-orria eta aurretik egindako prozesuaren aurkezpen publikoa ere. Orobat, foro tematikoak aurkeztu ziren eta hitzaldi zein tailerretan parte hartzeko gonbita luzatu zitzairen.

Bai jarduera honetarako bai berrikuspen prozesuko gainerako jardueretarako, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak eztabaida-foro bat sortzea proposatu zuen, elkargokideek haien ikuspegia azaldu ahal izateko. Hala, Delegazioak bere egoitza eskainiko luke eztabaida egiteko eta ekitaldia zabaltzen lagunduko, bai zirkularren bai sare sozialen bidez. Saioak egiteko egun batzuk zehaztu ziren, eta Delegazioak bere agendan prestakuntza gela erreserbatu zuen egun horietarako.

Foro tematikoen baitan ere, laguntzaile teknikoek proposatu zuten Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren Bizkaiko delegazioko kideren batek hizlari gisa parte hartzea berroneratzearen gaineko otsailaren 7ko foroan.

Foroan Arantxa Quintanak hartu zuen parte, maila pertsonalean, "HIKA arkitektura" estudioaren ordezkari gisa.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoari eskatu zitzaion Aurrerapen-dokumentuari ekarpen bat egiteko, eta Elkargoak elkargokide interesatuekin lantalde bat sortzea proposatu zuen.

Bilbao Metropoli 30

Alfonso Martínez Cearra, zuzendari nagusia	Bilbao Metropoli 30
Ana Sancho, Sustatze Planaren teknikaria	Bilbao Metropoli 30

Data: 2016/12/22

Tokia: Bilbao Metropoli-30. On Diego López Haroko kale nagusia, 45, 48011 Bilbao

Ordua: 9:30-10:15

Bilkura Bilbao Metropoli-30 elkartearen bulegoan egin zen.

Alfonso Martinezek eta Ana Sanchok Bilbao Metropoli-30 elkartearen ikuspegia azaldu zuten Bilbo Metropolitarraren LPParen berrikuspenari dagokiolarik. Azpimarratu behar da Bilbao Metropoli-30 elkarte, 2006an, Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren Idazkaritza Teknikoaz eta Koordinazioaz arduratu zela.

Elkarte gisa 1992. urtetik daramatzate Bilbo Metropolitarra birgaitzeko lan egiten; hortaz, lurraldean presentzia handia dute eta haien ikuspegi estrategikoa funtsezkoa da LPPa prestatzeko.

Hain zuzen, 2016. urtean, "Bilbao Metropolitano 2035. Una Mirada al Futuro" izeneko Hausnarketa Estrategikoa argitaratu zuten. Agiri hori ekarpen gisa erabil daiteke BMLPParen berrikuspenari begira.

Erakundea prest agertu zen hurrengo ekitaldietarako elkarrekin lan egiten jarraitzeko eta harremanetan egoteko, bai eta ekitaldiak zabaltzeko ere. Izan ere, aktiboki parte hartu du urtarilean eta otsailean Bilbon egin diren foro tematikoetan.

Basoa eta Baskegur

Fernando Azurmendi Irasuegi, zuzendaria

Bizkaiko Basogintza Elkarte, Basoa

Data: 2017/01/09

Tokia: Inguru Ingeniería y Gestión Ambiental S.L. Licenciado Poza, 55, 1. eskuina, 48013 Bilbao

Ordua: 10:00-11:00

Bilkura Inguru sozietatearen bulegoetan egin zen.

Kontxi Garciak eta Fernando Azurmendik Basoa Euskadiko Basogintza Elkartearen Konfederakundearen eta Bizkaian 3.000 elkartekide eta 6.000 jabe baino gehiago ordezkatzeko dituen Baskegur EAEko baso- eta zur-sektoreko lanbide-elkartearen ikuspegiak azaldu zituzten.

Lehenik eta behin, biltzeko prest agertu ziren, haien ustez, Bilbo Metropolitarraren LPPa berrikusteko prozesu hau oso garrantzitsua baita; haien iritziz, prozesuak basoarekiko lotura estua duten udalerrri askori eragiten die.

Egokitzat jo zuten aurretik azterketa sozioekonomiko bat egitea baso-eremuan egiten diren erregulazio murriztaileen jasangarritasun ekonomikoa baloratu ahal izateko. Era berean, adierazi zuten Bizkaiko Mendien Foru Arauak jarduera hori aski arautzen duela dagoeneko.

Iritzi zuten planak prestatzen dituzten pertsonak hiri-ikuspegi eta hiri-heziketa dutela eta, horrez gain, parte-hartze tailerretara joaten diren pertsona askok mendiko erabilera tradizionalak ukatzen dituztela, iritsi berriak direlako eta ez dutelako mendien historia ezagutzen. Ildo horretan komentatu zuten herritarrek ez dutela ondo ulertzen mendiaren jabetza eta ez dakitela zenbat kostatzen duen mendia mantentzeak.

Bestetik, ohartarazi zuten bat-batean baso guztiak espezie autoktonoz betetzeak "hondamendi ekologikoa" ekarriko zuela eta, ildo horretan, argudiatu zuten baso autoktonoa pixkanaka hazten ari dela, eta inbentarioak egin beharko lirakeela hori erakusteko. Izan ere, nabarmendu zuten hori EAEn zuraren eraldaketarako industria eta merkaturak egun existitzen den baso-motara zuzenduta egotearen ondorioa dela, egoera apurka aldatzen ari bada ere.

Baso-erabilera defendatzeko argudiatu zuten ere Bizkaiko batez besteko jabeak 10 hektarea baino gutxiago ustiatzen dituela, beraz, ez gara industria latifundista batez ari, biztanleria finkatzen laguntzen eta aberastasuna banatzen baitu.

Azken batean, honako esaldi hauek laburbiltzen dute Basoa eta Baskegurren borondatea:

"Euskal Herria bezalako baso-herrialde batean, baso-erabilera eremu ez urbanizatuak mantentzen dituen jarduera tradizionala da; hortaz, baso-jarduera murriztu aurretik lotutako azterketa sozioekonomiko bat egin beharko litzateke."

“Planen motibazioek ez badute baso-jarduera tradizionala aintzat hartzen, hobe jarduera ez arautzea, administrazio eskudunek baso-erabilera horiek arautzeko xedatu duten arautegia nahikoa baita.”

Bilbo Metropolitarraren egungo LPParen uneko planteamendua egokitzen jo zuten. Eta parte-hartzea herritar guztiei, landa-eremu urrunetako ekoizle eta pertsona guztiak barne, zabaltzea proposatu zuten.

Bilboko Auzo Elkarteen Federazioa

Aitziber Virgel, kidea	Bilboko Auzo Elkarteen Federazioa
Karmelo Anakabe, kidea	Bilboko Auzo Elkarteen Federazioa

Data: 2017/01/10

Tokia: Inguru Ingeniería y Gestión Ambiental S.L. Licenciado Poza, 55, 1. eskuina, 48013 Bilbao

Ordua: 10:00-11:00

Bilkura Inguru sozietatearen bulegoetan egin zen.

Aitziber Virgelek eta Karmelo Anakabek Bilboko Auzo Elkarteen Federazioaren ikuspegia azaldu zuten.

Lehenik eta behin, parte hartzeko gonbita eskertu zuten. Abiapuntu gisa ohartarazi zuten pertsona gehienentzat zaila dela ikustea zertan diren desberdin egun berrikusten ari den Bilboko udalerriko HAPOa eta Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plana, edo Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena; eta seinatu zuten, zoritxarrez, kointzidentzia horrek parte-hartzea zailtzen duela.

Ildo horretan ere, Federazioak argudiatu zuen prozesu parte-hartzaile eta jarduera parte-hartzaile gehiegi egiten direla aldi berean, eta "nekatu" samar daudela.

Haien aldarrikapen garrantzitsuenak hiru eremu tematikotan ardatzen dira. Lehenik, ohartarazi zuten udalerrri osoan egiten diren jarduera kutsatzaileek lurzoruen kutsadura eragiten dutela, eta bereziki kezagarritzat jo zuten Zabalgabiko erraustegiaren kontua. Bigarrenik, Bilboko udalerrriak barne hartzen dituen auzo degradatu asko berroneratzeko eskatzen dute. Eta, azkenik, Bilboko auzo askotan bide- eta trenbide-azpiegiturek sortutako oztopoek eragiten dituzten arazoak azaldu zituzten.

Federazioa dena ematen ari da Bilboko HAPOaren berrikuspenean; hortaz, prozesu hartan egin dituzten aldarrikapenetako asko erabilgarriak izango dira prozesu honetan ere.

Nolanahi ere, diagnostikoa jasotzeko interesa agertu zuten, hortik aurrera proposamenak egiteko.

Euskadiko Bide Ingeniarien Elkargoa

Amaia Garay Palacio, gerentea	Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Elkargoa
-------------------------------	---

Data: 2017/01/11

Tokia: Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Elkargoa, Juan Ajuriaguerra kalea, 35, 48009 Bilbao

Ordua: 10:00-10:45

Bilera Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Elkargoaren egoitzan egin zen.

Prozesuaren hainbat alderdi komentatu ahala, adostasun-esparruak bilatu ziren.

Erakusketa ibiltariaren nondik norakoak azaldu ziren eremu funtzionaleko hainbat udalerritan, bai eta web-orria eta aurretik egindako prozesuaren aurkezpen publikoa ere. Orobat, foro tematikoak aurkeztu ziren eta hitzaldi zein tailerretan parte hartzeko gonbita luzatu zitzairen.

Bide Ingeniarien Elkargoak bigarren foro tematikoan (Bilbo Metropolitarraren mugikortasun-ereduaren gainekoa) hizlari gisa parte hartzeko interesa agertu zuen; azkenean, Alessandro Gallastegui elkargokideak hitz batzuk esan zituen delako foroko hitzaldien ostean.

Gero, Amaia Garay prest agertu zen lantalde bat sortzeko, LAGak berrikusteko egin zen bezala, BMLPParen berrikuspenaren Aurrerapen-dokumentuari ekarpen bat egiteko.

CCOO Bizkaia

Mikel Vázquez Cisneros, arduraduna	Langile Komisioak, Bizkaia
------------------------------------	----------------------------

Data: 2017/01/11

Tokia: Langile Komisioak Bizkaian. Uribitarte kalea, 4. 48001 Bilbao

Ordua: 12:00-12:30

Bilkura Bizkaiko Langile Komisioen egoitzan egin zen.

Mikel Vázquez, CCOOko ordezkari gisa, prest agertu zen, baina zalantzak azaldu zituen erakundearen helburuen, langileen eskubideen eta BMLPParen arteko harremanaren inguruan. Laguntzaile teknikoek, garapen-ereduak eta lurraldearen okupazioak lanaren antolakuntzarekin nolako lotura duten deskribatu ondoren, interesa agertu zuten honen inguruan sindikatuen iritzia ezagutzeko. Azkenean, akordio bat erdietsi zen: CCOO Bizkaia erakundeak bere ekarpena egingo du diagnostikoaren dokumentua oinarri hartuta eta aurreikusitako erabilgarritasunaren arabera.

Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala

Jon Ander Etxebarria Garate, dekanoa

Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala

Data: 2017/01/17

Tokia: Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala. Poza Licenciado kalea, 31, 5., 48011 Bilbao

Ordua: 11:00-12:00

Bilera Euskadiko Biologoek Elkargoko bulegoetan egin zen.

Jon Ander Etxebarriak Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren ikuspegia azaldu zuen.

Abiapuntu gisa, Bilboko HAPOarekin bizitako esperientziaren ostean, Jon Anderrek zalantzak azaldu zituen parte-hartze prozesuen sakontasunaren inguruan, baina prest agertu zen BMLPPa berrikusteko prozesu honetan parte hartzeko.

Elkargoak esparru-dokumentu bat aurkeztu du jada BMLPPerako. Testuinguru honetan, dekanok aldarrikatu zuen Plana nolakoa izango den zehaztu ahal izateko esparru, filosofia edo eredu bat behar dela; profil ideologiko zehatz batek ideologia horrekin bat datozen emaitzak ematen baititu.

Kritikatu egin zuen Bilboren birmoldaketaren izaera ideologikoa oso espekulatiboa izan zela, eta bazegoela prezio altuko etxebizitza gutxiago eta berdegune zein ekipamendu publiko gehiago sortzea.

Supersur autobiaren eraikuntzari erreparatuta, esan zuen eredu ideologiko desarrollista batean oinarrituta dagoela eta, doakoa balitz, akaso trafiko astuna desbideratzeko balioko lukeela.

Elkargoak proposatu zuen gehiago inbertitzea erabilitako etxebizitzan garapen berrietan baino, batez ere Bilbao bezalako toki aldapatsu batean, lehenengoak ez duelako lurraldea hondatzen.

Dekanoak erreklamatu egin zuen Bilbao inguruko naturaguneak (Artxanda, Pagazarri) ezin direla hiriko berdegunetzat hartu udal-plangintzaren ratioak egiteko garaian.

Eta, azkenik, bide zein korridore ekologiko eta bizikleta-bideen inguruko bi alderdi komentatu zituen. Alde batetik, ohartarazi zuen bide natural edo korridore ekologikoak fauna eta floraren (autoktonoak) arteko konektore ekologikoa izan behar duela, eta ez bakarrik zuhaitzi apaingarria duen pasealeku bat. Eta, bizikleta-bideei dagoelarik, proposatu zuen hiri-eremuetan Europako iparraldeko eredu jarraitzea, hau da, espaloitik bereizitako bizikleta-bideak egitea, galtzadaren alboan integratuta, motordun zirkulazioari tokia kenduz.